DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

MUGIKORTASUN JASANGARRIA

- Salgaien eta bidaiarien garraio publikoaren arloan lanbidea uzteko diru-laguntzak 2
- Errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak eskuratu eta ezartzeko dirulaguntzak 4
- Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesionalentzako eta enpresarialentzako diru-laguntzak 6

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Salgaien eta bidaiarien garraio publikoaren arloan lanbidea uzteko diru-laguntzak

2.- Araua

Agindua, 2025eko ekainaren 24koa, Mugikortasun Jasangarriaren sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egin eta arautzen baita bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektorean jarduera uzteko laguntza-programa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Programaren araua eta deialdia:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/06/2502933e.pdf
Emate-ebazpena:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/04/2601692e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horiek ematen dira errepideko garraio publikoaren sektorearen arazoetako bati aurre egiteko, hain zuzen ere, garraiolari autonomoen adin handiari. Hori dela-eta, egokitzat jotzen da lan-bizitzaren zatirik handiena errepideko garraio publikoaren sektorean eman duten adin handiko garraiolariek, ezintasun iraunkor absolutua edo osoa aitortua dutenek eta baliaezintasun handia aitortua dutenek jarduera uztea sustatzea, eta hartarako, beharrezko baliabideak jarriko dira.
Helburua da garraioko profesionalen batez besteko adina murriztea salgaien eta bidaiarien garraioaren sektorearen lehiakortasuna eta modernizazioa bultzatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Laguntza horiek finantzatzeko 450.000 euro bideratu dira Euskal Autonomia Erkidegoaren 2025eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren kargura.
2025ko ekitaldiko programaren emaitzei dagokienez, bi fase bereizi behar dira:
- Eskabideak eta laguntzak ematea: aurkeztutako eskaeren kopurua (56) bigarren handiena izan da 2012tik. Hala, jasotako 56 eskaeretatik 9 ukatu ziren, laguntzak jasotzeko baldintzak ez betetzeagatik. Horietatik 2k gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zuten, eta aldeko ebazpena lortu zuten; beraz, laguntzaren onuradun izan ziren, eta eman beharreko zenbatekoa 449.600,00 eurokoa izan zen.
- Emandako laguntzaren justifikazioa eta exekuzioa: Exekuzioari dagokionez, 398.600,00 euro ordaintzeko agindua eman da. Emandako 47 laguntzetatik, 4 onuradunek uko egin zioten laguntzak kobratzeari, eta beste 3ri, berriz, emandako laguntza kobratzeko eskubidea galdu dutela adierazi zaie. Horietatik, eskatzaile batek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zuen, eta emaitza negatiboa izan zen.

Aurkeztutako 56 eskabideetatik 42 onuradun egoteak esan nahi du adineko edo ezintasun iraunkorra duten 42 garraiolarik lanbidea utzi eta jarduera-baimenari uko egin diotela. Emaitza horiek 2025rako aurrekontuen memorian 40 magnitudetan ezarritako helburua gainditu egin dituzte.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Uko egiten zaien garraio-baimenen kopurua	40	42 (emandakoak)

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak eskuratu eta ezartzeko dirulaguntzak

2.- Araua

Agindua, 2025eko uztailaren 22koa, Mugikortasun Jasangarriaren sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egin eta arautzen baita laguntza-programa bat Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoaren sektorean teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak eskuratu eta ezartzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Programaren araua eta deialdia:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/08/2503419e.pdf
Emate-ebazpena:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/04/2601718e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak ematen dira Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko. Lortu nahi den helburua da zerbitzua emateko garaian segurtasuna, kalitatea, gardentasuna eta bizkortasuna handitzea; alde batetik, positiboa da garraiolariarentzat, zerbitzua azken belaunaldiko produktuekin modernizatzeko aukera emango diolako, eta bestetik, erabiltzailearentzat ere onuragarria da, kalitate, gardentasun eta segurtasun handiagoko zerbitzu bat jasotzen duelako.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Laguntza horiek finantzatzeko 110.000,00 euro bideratu dira Euskal Autonomia Erkidegoaren 2025eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren kargura.
2025ean programaren eta lortu nahi diren helburuen betetze-mailaren ebaluazioari dagokionez, azterketa prozesuaren bi une bereizitan banatzen da.
- Laguntzak ematea: Aurkeztutako eskabideen kopuruari dagokionez, emaitza programaren historiako onena izan da, 26 interesdunekin. Emandako zenbatekoari dagokionez, 41.130,06 euro, aurreko urtean emandakoa baino askoz gehiago. Izan ere, deialdian bigarren belaunaldiko takografoa gehitu da eta horrek eragin du emaitza hobeak lortzea; hala ere, helburua lortzeko zenbatekora ez da iritsi.
- **Betearazpena:** 20 onuradunetatik 19k behar bezala justifikatu dituzte egindako inbertsioak, guztira 75 ibilgailuetan lokalizazio, segurtasun elementuak edo bigarren belaunaldiko takografoak instalatu dira.

Laguntzaren justifikazioari dagokionez, interesdun batek ez duenez instalatu eskaeran esandakoa, ezin izan du justifikaziorik egin, eta arrazoi horrengatik dirulaguntza baliogabetu zaio. Bestalde, beste interesdun batek eskaeran esandako inbertsioa baino gutxiago justifikatu du; hori dela eta, dirulaguntza horren zenbatekoa murriztu da. Beraz, guztira 38.999,44 euro ordaintzeko agindua eman da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Egindako inbertsioen kopurua	10	75

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesionalentzako eta enpresarialentzako diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko irailaren 9koa, Mugikortasun Jasangarriaren sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesional eta enpresarialei laguntzak emateko deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Programaren araua eta deialdia:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/09/2504069e.pdf
Emate-ebazpena:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2026/04/2601691e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak ematen dira salgaien eta bidaiarien errepideko garraioaren arloko elkarte profesionalen eta enpresarialen jarduera eta ekimenei laguntzeko. Helburua da erakunde horiei laguntzak emateko mekanismo bat ezartzea, uste baita elkarte profesionalak eta enpresarialak gai direla sektorean dauden gabeziak betetzeko behar diren ekimenak sortzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo *gutxituekiko* desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Agindu horretan 2025an aurreikusitako laguntzak finantzatzeko, 120.000 euroko zenbatekoa kalkulatu zen, aurreikusitako eskaeretara eta zenbatekoetara egokitzen zela iritzita.
Laguntza horiek 7 espedientek eskatu dituzte (eskaera bat ezetsi zen eskaera bera bi aldiz aurkeztu zelako ,eta bestea epez kanpo aurkeztu zelako). Espediente horietatik, 5 espedienteri eman zaizkie laguntzak (77.088,91 euro), eta 73.072,35 euro egikaritu dira. Esan behar da elkarte batzuek ez dituztela gastu guztiak justifikatu, eta, horregatik, zenbateko txikiagoa egikaritu dela.
Programaren eta lortu nahi diren helburuen betetze-mailaren ebaluazioari dagokionez, 2025ean izandako emaitzak (7 eskaera eta 5 onuradun) Plan Estrategikoan (2025-2028) aurrez ezarritako helburuetara hurbiltzen dira. Erantzuna egokitzat jotzen da, eta, beraz, aurreikusitako programa bete dela uste da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Elkarte eskatzaileen kopurua	6	5